

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Aurrekontuak, Finantza-kudeaketa eta Diruzaintza

Vitoria-Gasteizko Udalaren, haren udal erakunde autonomoen eta udal sozietate publikoen 2022ko ekitaldiko aurrekontu orokorreari hasierako onespina ematea

2022ko ekitaldiko aurrekontu orokorreari hasierako onespina ematea erabaki zuen Vitoria-Gasteizko udalbatzak 2021eko abenduaren 23an egindako aparteko osoko bilkuran. Horien barruan honako hauek daude sartuta: udal erakundearenak berarenak, administrazio izaerako udal erakunde autonomoenak -Jose Uruñuela Udal Dantza Eskola, Luis Aranburu Udal Musika Eskola eta Ingurugiro Gaietarako Ikastegia- eta udal sozietate publikoenak -Vitoria-Gasteizko Udal Urak SA (AMVISA), Vitoria-Gasteizko Hiri Garraioak SA (TUVISA), 21 Zabalgunea SA eta Vitoria-Gasteizko Industri Lurra SA.

Arabako Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko martxoaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluan xedatutakoaren ildotik, honen bitartez jakitera ematen da Vitoria-Gasteizko Udalaren 2022ko ekitaldiko aurrekontu orokorrak jendaurrean jarrita egongo direla Ogasun Sailean, 15 egun baliodunez -iragarki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik-, interesatuta daudenek aztertzerik izan dezaten, baita egokitzat jotzen dituzten alegazio eta erreklamazioak aurkezterik ere, udalbatzari zuzenduta.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko erabaki hori behin betiko bilakatuko da, eta berriro ere jendaurrean jarriko dira aurrekontuak, kapituluz kapitulu laburtuta, aurreko paragrafoan adierazi den modu berean.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko abenduaren 23an

Ogasun Saileko zinegotzia
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE